

IV.—Kaietano Ituríoz apaiz jaunak Euskaltzaindiari idazki bat biali dio. Ez da aitzakotzat artu.

V.—Azkue jaunak irakuñi digu : *Apéndice a la Morfología : epéntesis*. Gero beste bat : *Repartición semántica* deitzen dana.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu degu batzaraldia.

Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzaren Gela nagusian 1927'ko Azila'ren 25'an.

Aurêko agirian aitatu diran euskaltzain jaunak batzaraldian daude. Azkue maipuru. Otoitz egin da.

I.—Azkue jaunak txosten bat irakuñi digu, *r* nola ibili bear dan adierazirik : bai *konsonante* aurêan bai *vocal* tartean. Altubek ere bere aburua azaldu digu, ta *konsonante* aurêko *r* mañatua alpeñikakoa deritza. Luzaroan autuan egon ondoren auxe erabaki da :

«*R* mañatua, *vocal* artean bakañik azalduko da. Mañatua ere etofiko da itz aben azken-izkian : *Ur-* (ur-avellana) ta *Zur* (recto, económico, cicatero)».

II.—Badira euskal-idazleak, *guion* edo arbatxoa erabiltzen dutenak *declinacion* edo itzeko gorabere-tan : arbatxo ori garbi azaltzen zaie : edo *Bilbo*'ko edo *Agurea*'ren idazten dutenean. Euskaltzaindiak deritza, ez dala arbatxo ori *declinacion*-an jañi bear : ez dute beste izkuntzak erabiltzen, geon *declinaciona* bañio ilunagoa erabili-aren; eta etzuteren ere orêlako muturik erabili lengo gure idazle zañak. Gañera beste toki askotan erabili bear litzake senaz ibiltzekotan. Beste batzuek, *i* azkenki danean *y* egin oi dute,

vocal-i erazten zayonean. Ontan ere erabaki bat on litzake. Uréngo batzarétarako utzi da.

III.—Landerétxe jaunak *Zuur-itx* batzuek irakuí dizkigu. *Euskera*-n azalduko dira.

IV.—Auréko batzaráldian, batzorde bat sortu da Iztegi-lanak gertutzeko: Batzorde ortan, Altube ordez, Olabide izango da : ta Gabonetako opor-egunetan sei edo zazpi txandaz bildu litezke.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzaráldia.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean 1928'ko Ilbel- tzaren 26'an.

Aipatzen diran euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Urkijo, Landerétxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe ta urgazletatik Ormaetxea. Otoitzez asi da batzaráldia.

I.—Poz aundiz ikusten du Euskaltzaindiak, Iruñako Udalak, lendikako erabaki bat jaíaiturik, aurtén ere euskal-idazle batzaldia eragiten duela. Batzaldi ontan gai bikañak azaltzen dira, bai idazle gazteentzat bai zaíentzat, guziak ordea euskeraz idatzi beaíak Zorionak damazkio Euskaltzaindiak Iruñako Udalari ta beste Udal ta Aldundiak oírentxen ereduz balebiltz, ainbat obe.

II.—Azkue jaunak berak egindako lan bat irakuí digu, ta erderaz dakar idazkain auxe: «Neologismos formados a imitación de otras lenguas». Iztegiari dagozkion gai batzuek ongi ta ongi erakaíiz, bere lanaren oin, alemaneraz idatzitako liburu bat izan zaio: Alemanian noski eztabaitagogoíra sortu da, itz-beñiak dirala bide. Adierazten digu gañera, zer egin degun lan ontan, alemanak ere beren alderdian zer dakarten,